

# XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

3886

*ERABAKIA, 2012ko uztailaren 19koa, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluarena, arte ederren fakultatearen arautegia onartzeko dena.*

Euskal Herriko Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak ikastegietarako arautegi markoa onetsi zuen 2012ko otsailaren 23ko Erabakiaren bidez, Gobernu Kontseiluaren 2011ko ekainaren 23an onetsitako garapen arautegia berrikusteko egutegia betez.

Arautegi marko hori oinarritzko arautegi gisa eratu da. Beraz, sailek horren gaineko alderdien inguruan arautu beharrekoaz erabaki dezakete, modu horretara, zeinek bere antolamendu autonomia bermatuz.

Ikastegien arautegi markoaren bigarren xedapen iragankorrek sei hilaren epea ematen zuen, indarrean sartu zen egunetik hasita, ikastegiek bertan adierazitakora ekarri eta molda zitzaten tokian tokiko arautegiak.

Arte Ederren Fakultateak, arautegi honen babesera etorruta, onartu egin zuen ikastegi batzarrak 2012ko maiatzaren 24an egindako bileran bertako arautegiaren arautegi marko berrirako egokitzapena.

Hori guztia kontuan hartuta, eta ikusita idazkari nagusiaren proposamena, Gobernu Kontseiluak honako hau

## ERABAKITZEN DU:

Lehenengoa.– Arte Ederren Fakultatearen arautegia onartzea.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea.

Hirugarrena.– Arte Ederren Fakultatearen arautegia argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Leioa, 2012ko uztailaren 19a.

Errektorea,  
IÑAKI GOIRIZELAIA ORDORIKA.

Idazkari nagusia,  
EVA FERREIRA GARCÍA.

## ERANSKINA

## UPV/EHUKO ARTE EDERREN FAKULTATEAREN ARAUTEGIA

1. artikulua.– Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 9.2 artikulua zehaztapena.

2.– Ikastegiko Batzarrak 40 kide hautetsi izango ditu era honetara banatuta unibertsitate sektoreen arabera:

Irakasle eta ikertzaile iraunkorrak: % 60 (24 kide).

Gainerako irakasle eta ikertzaileak: % 5 (2 kide).

Ikasleak: % 25 (10 kide).

Administrazio eta zerbitzuetako langileak: % 10 (4 kide).

2. artikulua.– Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 11. artikulua zehaztapena.

Batzorde iraunkorra eratuko da eta osakide hauek izango ditu: dekanoa (batzordeko burua izango da); idazkari akademikoa (batzordeko idazkaria izango da); zazpi irakasle iraunkor; gainerako irakasle eta ikertzaileen ordezkari bat; administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat; eta bi ikasle.

Batzorde honek izango ditu Ikastegien Oinarrizko Arautegian Ikastegiko Batzarrarentzat zehaztutako eginkizun berberak, eskuordetu ezin direnak izan ezik, bai eta une jakin batean Ikastegiko Batzarrak eskuordetzen dizkionak ere.

Batzorde Iraunkorrak izango ditu oinarrizko arautegian Ikastegiko Batzarrarentzat zehaztutako oinarrizko funtzionamendu arau berak, eta gutxienez bi bilera egingo ditu sei hilabete bakoitzean.

3. artikulua.– Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 12.2 artikulua zehaztapena.

2.– Ikastegiko Akademia Antolakuntzako Batzordeak osakide hauek izango ditu, betiere gizonen eta emakumeen kopurua orekatua dela, ahal bada: ikastegiko dekanoa edo hark bere ordezkari izendatzen duen pertsona (bera izango da burua); ikastegiko idazkari akademikoa edo hark bere ordezkari izendatzen duen pertsona (idazkaria izango da); ikastegian ematen diren titulazioetako irakasle bana; eta ikasle bi ordezkari.

4. artikulua.– Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 14.1 artikulua zehaztapena.

1.– Euskara Batzordea eratuko da, parte hartzerako eta aholkurako organoa izango dena. Kide hauek izango ditu: dekanoa eta hark bere ordezkari izendatutako pertsona (batzordeko burua izango da); idazkaria, batzordeko kide guztien arteko aukeratua; irakasle bi ordezkari bat sail bakoitzeko; ikasle bi ordezkari; AZPkoen bi ordezkari.

5. artikulua: Berdintasun Batzordea. Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 5.2.1) artikulua zehaztapena.

5.– Eginkizunak: 2.– Hauek dira ikastegiaren eginkizunak: 1) Ikastegian genero berdintasuna lortzeko neurriak hartzea. Berdintasun batzorde bat egongo da eta osakide hauek izango ditu: dekanoa eta hark bere ordezkari izendatutako pertsona (batzordeko burua izango da); idazkaria, edo hark bere ordezkari izendatutako pertsona; irakasle bi ordezkari bat gradu bakoitzeko; ikasle bi ordezkari; AZPkoen bi ordezkari.

6. artikulua.– Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 24.3 artikulua zehaztapena.

3.– Dekanoa sufragio unibertsalaz aukeratu da. Ezin izango da eskuordetu botoa (oinarrizko arautegiko 19.2 artikuluan aurreikusitako aukera).

7. artikulua.– UPV/EHUko Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7. artikulua zehaztapena.

Ikastegiko dekanoa hautatzeko, botoa alde aurretik ematea onartuko da, Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

8. artikulua.– Zuzendaria aukeratzeko hautagai zerrendak. UPV/EHUko Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 18.4 artikulua zehaztapena.

4.– Ikastegiko dekanoren kargurako hautagai zerrendari gobernu taldearen egitura eta programa erantsi behar zaizkio.

9. artikulua.– Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 18.3 artikulua zehaztapena.

Kide anitzeko organoetako kideek eskubidea dute beren eginkizunak betetzeko behar duten dokumentazio eta informazio guztia eskatu eta eskuratzeko. Eskaria idatziz egin beharko diote organoko buruari edo ordezkari nagusiari, eta gehien dela hamar egun balioduneko epean izan beharko dute erantzuna.

10. artikulua.– Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 19.2 artikulua zehaztapena.

2.– Botoa eskuordetu egin daiteke, hauteskundeetan izan ezik. Horretarako, idatzi sinatua bidali beharko zaio ikastegiko idazkariari gutxienez egun bat lehenago. Kide anitzeko organoko kideek boto bakar bat izan dezakete eskuordetuta. Organoak eratzeko quorumari dagokionez, ez dira kontuan hartuko eskuordetutako botoak.

Botoa eskuordetzeko idatzia bilerako aktari erantsi beharko zaio.

11. artikulua.– Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 23.2 artikulua zehaztapena.

2.– Ikastegiak hartutako erabakien berri zabaltzeko, idazkari akademikoak ziurtagiri bat egingo du, eta hor jasoko du erabakien zerrenda. Ziurtagiria hiru egun balioduneko epean argitaratu du zuzendaritzako iragarki ohelean eta ikastegiaren iragarki ohol birtualean, halakorik badago, betiere pertsonen intimitatea eta datuak babesteko legeria errespetaturik. Organoko idazkariak eta buruak bermatu egin beharko dute bileran hartutako erabakiak argitaratu egingo direla eta gutxienez hilabete bat egongo direla ikusgai. Aldi hori kontuan hartuko da errekursoak jartzeko epea zenbatzean.

12. artikulua: Epaimahaiak.

Ikasleen ebaluazioari buruzko arauak jarraiki beharrezkoa izanez gero epaimahaia eratzea 1., 2., 3. edo 4. deialdirako, 5. eta 6. deialdietako epaimahaiak arituko dira.

13. artikulua.– UPV/EHUko Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.2 artikulua zehaztapena.

Hautetsiak kargua uzten duenean zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsiak beteko du haren lekua. Ordezkapena indarrean sartuko da organoko idazkariak horren berri ematen duenean, gehienez ere bi egun balioduneko epean ordezkapena egin behar dela jakiten duenetik hasita.

14. artikulua.– UPV/EHUko Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.3 artikulua zehaztapena.

3.– Kide anitzeko organoko titularra kanpoan edo gaixorik dagoenean eta, oro har, bertan ez dagoenean arrazoi justifikaturen bategatik, behin-behineko ordezkioak beteko du haren lekua. Ordezkapena gauzatzeko, halako egoera batean dagoen titularrak kide anitzeko organoko buruari jakinarazi beharko dio, bilera baino gutxienez bi ordu lehenago.